



EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 27koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez luzatu egiten baita diru-zuzkidurak gauzatzeko eta justifikatzeko epea, deialdi honi dagokionez: Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei, unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza (araubide orokorreko heziketa-zikloak salbu) ematen dutenei, diru-zuzkidurak ematea, 2019-2020 ikasturtean prestakuntza-jarduerak egin ditzaten, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta (L3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren esparruan).

2019ko martxoaren 4an, Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko martxoaren 4ko Ebazpena argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, Hezkuntza Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza (heziketa-zikloak salbu) ematen duten ikastetxeei dei egin zitzaion, 2019-2020 ikasturtean prestakuntza-jarduerak egin zitzaion, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta (L3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren esparruan). Ebazpen honen xedea da diru-zuzkidurak ematea Hezkuntza Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko edozein maila eta motatako irakaskuntza ematen duten ikastetxe publikoei (heziketa-zikloak bakarrik ematen dituztenei salbu), baldin eta, 2019-2020 ikasturtean, berrikuntza-proiektuak egiten badituzte ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko modalitate hauetakoren batean:

- A. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, irakurketa-plana lehentasuntzat hartuta eta hizkuntzen tratamendu integral eta integratuaren ikuspuntutik garatuta.
- B. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua eleaniztuna, euskara ardatz hartuta eta curriculum-alor edo -gaiak atzerriko hizkuntzetan irakasteen zentratuta.

Halaber, ebazpen horren 18. artikuluan xedatzen denez, erakunde onuradunek, 2020ko ekainaren 15a baino lehen, proiektuaren garapenaren eta ebaluazioaren memoria aurkeztu beharko dute <https://ikasgunea.euskadi.eus> webgunean. Memorian, honako hauek jaso beharko dira: egindako jardueren zerrenda, horien garapena, helburuen lorpen-maila eta jarduera bakoitzaren kostua, betiere onartutako jarduerari egoztekoa bada. Emandako ordu-kredituaren erabilera egiaztatze aldera, ordu-kreditu horri esker egindako jarduera justifikatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte ikastetxeek. Gainera, memoriak barnean hartuko du ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzaren ziurtagiri bat, zeinak berariaz zehaztuko baitu ikastetxeko irakasleek guztira egindako orduen zer ehunekotan parte hartu duen irakasle bakoitzak.

Bestalde, ekainaren 3an, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren 2019ko ekainaren 3ko Ebazpenaren bidez esleitu ziren diru-zuzkidurak jakinarazi zitzaizkien ikastetxe publikoei. Ebazpen haren bidez, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza eskaintzen duten Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei (salbu eta heziketa-zikloak ematen dituztenei) zuzendutako deialdia ebatzi zen, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta 2019-2020 ikasturtean prestakuntza-jarduerak egiteari buruzkoa. (L3. Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan).

Covid-19aren pandemiak eragindako egoerak, ordea, ikastetxeen jarduera normala eragotzi du.

Ondorioz, jarduera batzuk aurreikusita eduki arren Covid-19aren ondoriozko alerta sanitarioko egoera dela-eta jarduerok zehaztutako epean egin ezin dituzten ikastetxeen kasuan, Ebazpen honen bidez, luzatu egiten dira aipatu 2019ko ekainaren 3ko Ebazpenarekin eman ziren dirulaguntzak gauzatzeko eta horien justifikazioa aurkezteko epeak. Horiek horrela, hau



## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Azaroaren 6ra arte luzatzea Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2019ko ekainaren 3ko Ebazpenaren bidez diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea. Ebazpen horren bidez, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza eskaintzen duten Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoek (salbu eta araubide orokorreko heziketa-zikloak ematen dituztenek) ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta 2019-2020 ikasturtean prestakuntza-jarduerak egiteko deialdia ebatzi zen. (L3. Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan).

Bigarrena.- Azaroaren 6ra arte luzatzea proiektuaren eta/edo esperientziaren garapenari eta ebaluazioari buruzko memoria aurkezteko epea. Memoriak barnean hartu beharko ditu egindako jardueren zerrenda, horien garapena eta helburuen lorpen-maila, eta jarduera bakoitzaren kostua, betiere, onartutako jarduerari egoztekoa bada, eta ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzaren ziurtagiri bat, zeinak berariaz zehaztuko baitu ikastetxeko irakasleek guztira egindako orduen zer ehunekotan parte hartu duen irakasle bakoitzak.

Hirugarrena.- Oraindik gauzatu gabeko jarduera aurreikusiren bat duten ikastetxeek, ekainaren 15a baino lehen, dokumentu bat aurkeztu beharko dute, aipatu jarduera eta hura gauzatzeko aurreikusitako plangintza deskribatzeko.

Laugarrena.- Aipatu luzapenak gorabehera, proiektua amaituta duten erakunde onuradunek ebazpenean ezarritako epean aurkeztu beharko dute dokumentazioa, deialdian xedatu ziren mekanismoak baliatuta.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka egiteko, ikastetxeek erreklamazioa jar diezaiokete Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari, hamar egun naturaleko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 27a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.

LUCÍA TORREALDAY BERRUEDO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN